

ARISKU CLIMATIKOA

Posted on 17/08/2022 by Naider

Zerbitzuaren ikuspegia

Hiri-inguruneetako bero-olatuen eta uholdeen aurrean Klimaren Arriskuari buruzko azterketak prestatu

Klima Aldaketaren aurrean erresilientea den hiria

Kalkulu geoespazialeko eredia, udalerrri bat klima-arriskuen eskalan kokatzea, eremu ahulenak identifikatuz eta eragin sozioekonomikoa ezagutzuz.

Testuingurua:

Mundu mailan, hiri-eremuen % 70ek aitortzen dute klima-aldaketaren eragile gisa duten zeregina. Hiriak ingurumenean duten eragina arintzen ez ezik, klima-aldaketaren ondorio itzulezinetara egokitzen eta hiri jasangarriagoak bihurtzen saiatzen ari dira.

Klima Aldaketari buruzko Gobernu arteko Taldeak (IPCC) dio klima-aldaketaren arrisku global asko hiri-eremuetan pilatzen direla. Hiriak azkar hazten ari dira eta 2050erako biztanleriaren %60 hiriguneetan biziko dela espero da. Zentzu honetan, biztanleriaren kontzentrazio handiagoak eta horren hazkunde azkarrak hirien ahultasuna areagotzen du klima-aldaketaren aurrean. Estres termikoak, muturreko prezipitazioak, barnealdeko eta kostaldeko uholdeak, airearen kutsadura, lehortek eta ur eskasia arriskuak dakartzate hiriguneetan pertsonen, ondasunen, ekonomiaren eta ekosistemetarako.

Etorkizuneko proiektioetan, klima-aldaketak nabarmen eragingo du hiri-inguruneak definitzen dituzten alderdi askotan. Esaterako, prezipitazioen intentsitatea eta maiztasuna handitzeak eta itsasoaren mailaren igoerak uholde larriak eta maiz eragingo ditu. Edo tenperatura igoerak eta prezipitazio murrizketak eremu askotan lehortea jasango du.

Erantzuten dion esparru instituzionala: Europako Itun Berdea, Parisko Akordioa eta Klima Aldaketari Egokitzeko Europako Estrategia, Klima Aldaketari buruzko Gobernu arteko Taldearen (IPCC) txostenak.

Argazki nagusiaren kreditua: ZIGOR garcia barbarias

